



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ETA ERAKUNDEEN ADMINISTRAZIOAREN 2005-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere administrazio instituzionalaren 2005eko ekitaldiaren ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek gehiengoz onetsi dute.

Txosten honek kontularitza eta legezko alderdiak eta finantza egoeraren azterketa barne hartzen ditu.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk Foru Aldundiaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileriaren alorrean, erakunde fiskalizatzailearen iritzira, ez da arautegi fiskala betetzen, langileei egindako izaera sozialeko hainbat ordainketa ez baitira lan etekin modura barne hartu. Berebat, txandakako kontratu bati loturik erretiro partziala eskuratu zuten bost langileri ordaindutako lizentzia berezia eman zaiela ere jaso du txostenak, inolako kontraprestaziotatik salbuetsiaz.

Legea betetzeari buruzko iritziaren atalean jaso den beste alderdi bat izan da administrazioko kontratazioan hainbat ez-betetze izan direla. Honela, bada, guztira 1,3 milioi euro egin dituzten hainbat kontratazio, publizitate eta lehia printzipioak urratuz gauzatu dira, horiek ez ezartzeko apartekotasuna arrazoiz justifikatu ez dela. Halaber, 6,7 milioi euroko zenbatekoa egin duten lanen kontratazioan indarreko arautegia ez dela bete iritzi dio Epaitegiak, jardueren banakako kontratazioak gauzatu baitira, espediente homogeneoetan metatu beharrean.

Erakunde fiskalizatzaileak udalei 2 milioi euroan ustekabekoen kontzeptuan emandako laguntzen legezkotasuna ere zalantzan jarri du, ez baitu uste diruz lagungarri diren ekintzak kontzeptu horri dagozkionik. Guztira 9 milioi euro egin duten beste 32 laguntza zuzenean eman dira, batik bat, udalei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei, publizitate eta lehia bidez bideratutako diru laguntza deialdietan barne har zitezkeenean.



Iritziaren atal honetan barne hartu diren beste zenbait alderdik lehenagoko ekitaldietan administrazioak jardun ez izanari egiten diote erreferentzia, izan ere, horren ondorioz 1,3 milioi euroko zerga zorrak preskribatu baitira, edota bi lursail Bizkailur, SAREN kapital sozialari tasazioaz beheragoko prezioan eman.

Bestetik, Foru Administrazioaren kontuei dagokienez, txostenak aldeko iritzia azaldu du aurkezpen eta edukiari dagokionez, nahiz Aldundiak aurkeztutako saldoei hainbat zuzenketa egiten dizkien, dela aurrekontuaren likidazioari buruzkoak, dela balantzeari buruzkoak.

Zuzenketa hauetarik gehienak erakunde fiskalizatzaileak onartu ez dituen eragiketarako erregistratzeko irizpideen aplikazioari dagozkio, zeinak Pilatutako Emaizta Erabilgarria 124,3 milioi euroan jartzen duten.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakundeen Administrazioari dagozkion ataletan txostenak 2005eko ekitaldian existitzen ziren hiru erakunde autonomoak, hamasei foru sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko ente publikoa aztertu ditu.

Erakundeen Administrazioa osatzen duten entitate bakoitzari dagokionez, HKEEK azaleratu dituen ez betetzeak eta aurkeztutako kontularitzako saldoen salbuespenak azpimarratu dira eta erakunde fiskalizatzailearen iritzi orokorra aldekoa izan da, adierazi diren ez betetze eta hutsak salbuetsita.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalei, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, dirulaguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak.

Amaitzeko esan, gauzatutako finantzaren analisisian azpimarratzekoa dela kontsolidatutako aurrekontu saldoan izan den igoera (Erakunde Autonomoak barne hartuta), 2004an 29 milioi eurokoa izatetik, 2005ean 142 milioi izatera aldatu dena. Halaber, enpresa publikoei dagokienez, 14 milioi euroko mozkinarekin amaitu dute ekitaldia, honako hau ere aurreko ekitaldikoa baino handiago dena.